

# ZALLAren ALDE



**EAJ/PNVren USTETAN ENKARTERRI IRRATIA ESKUALDEKO MENDEBALDEAN ENTZUN AHAL IZATEAK ZALLAKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZARI LAGUNTZEN DIO**



Zallako alkateak aditzera eman duenez, urtarrilaren 18an gauzatuko da mendebaldeko Enkarterria ( Trutzioz, Karrantza, Artzentales...) hartzen duen errepikagailuaren deskonexioa, mantentzeko kosteak urtean 10.000 euro suposatzen dituelako. Errepikagailu hau balio gabetzean, udalerrri hauek ez dute gehiago Enkarterri Irratia entzungo.

Zallako EAJren ustetan, koste hori Zalla herriaren alde egiten den sustapen lanaren bidez atera daiteke, onuragarria izan baita bere merkataritza eta ostalaritzarako.

Erabaki hau ez da kaltetutako eragileekin batera hartu, eta herriko ostalari eta merkatariek adierazi digutenaren arabera, Zallako merkataritza eta ekimenen sustapena egiteko bide bat mozten da.

Ondorioz, komenigarria litzateke ZALLA BAI taldeak bere erabakia aldatzea gure herriko merkataria eta ostalarien onerako .

**Zallako EAJ-PNVren ustetan eskualdeko osasun zentroaren kokapena udal talde guztien artean adostu beharra dago**

**EAJk eskatu du behin betiko kokapena alderdi guztien artean adostea, eta hiritarren irizpideak kontuan hartzea proposatu du**

Gobernu taldeak osasun zentro berria Euskadi enparantzan egiteko , hau da, gaur egun herriko osasun zentroa dagoen eta saskibalo kantxa hartzen duen tokian eraikitzeak hartu duen erabakiaren aurrean, Zallako EAJk proposatu du eraikinaren behin betiko kokapena alderdi politiko guztien arteko adostasun bidez erabakitzea, lehenago hiritarrei beren iritzia galdetu ondoren.



Zalla Bai taldeak aukeratu duen tokiak URA erakundearen oniritzia jaso duen arren , jakiteke dago oraindik Osakidetza irizpidea; baina hori baino garrantzitsuagoa dena, gure herrikideen iritzia. Aldizkaritxo honen aurreko zenbakietan azaldu dugun moduan, EAJren ustetan aukeratutako hori ez da egokiena, eta hauek dira gure arrazoiak:

- Udal merkaturia lekuz aldatu behar izatea.
- Ikastetxerako eta Osasun Zentrorako sarbideak eragozten dira .
- Zallako erdiguneko trafikoa eragozten da, autoak Enkarterri guztietatik bertaratuko direlako .
- Gaur egun Ikastetxean sarrera eta irteera orduetan dauden aparkaleku arazoak areagotuko dira, Mimetiz Ikastetxe publiko doazen neska mutilen eta bestelako oinezkoentzako arriskuak eraginez .

Horregatik guztiagatik, dauden aukera guztiak aztertzea eskatzen dugu, behin betiko erabakia hartu baino lehen. Horretarako, donen arteko mahaia osatzea eskatzen dugu, Enkarterrietako osasun espezialitateetarako zentroaren kokapena erabakitzeke, eta gure herriarentzat hain erabaki garrantzitsua hartzeko orduan, hiritarren iritzia kontuan har daitezten.

**ORAINGO EGITASMOAK SUPOSATZEN DITUEN DESABANTAILAK**

- Especialitate Egoitza zabaltzeko aukera eragozten du.
- Ikastetxea etorkizunean handitzeko aukerak hipotekatzen ditu
- Ikastetxe ondoko jolas eta aisi gunea murrizten /desagerrarazten da .
- Plaza murriztu /desagerrarazten da, eta ondorioz murrizten/desagerrarazten dira aisi aldirako edo jai esparru gisa ematen dituen aukerak



**ZALLAKO EAJ/PNVK UDALARI ESKATU DIO BEHAR BESTEKO GESTIOAK EGIN DITZALA TELEBISTA KATE BATZUK GURE HERRIAN SINTONIZATU AHAL IZATEKO**

Zallara TDT heldu zenetik, ezin dira lehen hartzen ziren telebista kate batzuk doan sintonizatu, besteak beste Telebilbao, Hamaika Telebista edo Tele 7.

Proposamen hau herri osoari interesatzen zaio eta EAJ/PNVren Udal Taldeak Udalarari eskatu dio gure Herriaren onerako kudeatzea



**Konekta Zaituz**

<http://www.facebook.com/ZallakoEajPnv>  
<http://zalla.eaj-pnv.eu>  
[zallakoeajpnv@gmail.com](mailto:zallakoeajpnv@gmail.com)  
 móvil: 644254665

**2013 urterako AURREKONTUAK**

**EAJ-PNVk aurkeztu duen proposamenaren bidez, dirua krisiaren eraginei aurre egitea eta kirol zerbitzuak hobetzea bilatzen da**



**Aurreko urteotan aurreztu duguna ( EAJ-PNVren gestioarekin) errealtate egin ditzake 2013 urteko inbertsioak**

EAJ-PNVk 2013 urteko aurrekontuari begira egin dituen proposamenetan aurreikusten da enplegua sustatzeko egitasmoak, ekintzaileei eskaintzeko lonja hutsak prestatzea, kirol zerbitzuak hobetzea eta gainerako zerbitzu eta prestazioak bermatzea .

Gure ustetan oraingo kirol azpiegiturak handitu beharrean aurkitzen gara. Kirol azpiegitura gehiago behar dira orain, gero eta jende gehiago delako udal kirol zerbitzuak erabiltzen duena. Horregatik, instalazio hauen handitzeko proposamena egiten dugu. Kirol ezberdinak praktikatzeko pista bi eraikitzea proposatu dugu, hauetako bat estalia .

Azkenean aurrekontuetan abstentzioa bozkatzeko erabakia hartu dugu, gure ustez ezinbestekoa da udalak kudeaketa ekonomikorako tresna eguneratua izatea, baina gure proposamenak ez dira barnean hartu. Gure ustetan, kontu hauek murriztak dira Zalla herriak 2013 urtean izango dituen beharrezkoen aurre egiteko, eta are murriztagoak izango dira etorkizuneko Zalla eraikitzeke oinarriak ezartzeko.

**EAJ/PNVk ERREMOLKEAK APARKATZEKO GUNEA EGOKITZEAK PROPOSATU DU**

Maiatzaren 2ko Osoko Bilkurak autoak herriko kaleetan geldiarazteko eta kentzeko Ordenantza onartu zuenetik, udalerriko herritarrek harremanetan jarri dira Zallako Udal Taldearekin, eta bere kezka adierazi digute erremolkeak ezin dituztelako automobilik gabe aparkatu.

Horregatik, eta neurri honek inolako kalterik suposatu ez dezan, gune batzuk egokitzea planteatzen dugu, halako ibilgailuak aparkatzeko tokirik ez dutenek, ibilgailu horiek uzteko aukera izan dezaten, herriko aparkalekuak gutxitu barik.

**ZALLAKO EAJ/PNVK TXIRRINGAK GARBITZEKO GUNEAK JARTZEA PROPOSATU DU**

*Gero eta gehiago dira gure udalerrian txirringa erabiltzen duten pertsonak; eta gure aldetik kirol praktika hauek sustatu, babestu eta erraztu behar ditugu.*

*Iradokizun hau gure herriko txirringariek egin digute eta Udalarari proposatu diogu txirringak garbitzeko gune batzuk jartzea, herriko puntu ezberdinetan txirringak urez garbitu ahal izateko.*

**ZORIONAK!**



Geure burua zoriontzeko arrazoia dugu; alde batetik, Bilbok Iñaki Azkunarekin (EAJ/PNV)du MUNDUKO ALKATERIK ONENA eta beste alde batetik, Andoni Ortuzar da EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarraren presidente berria . Denbora latzak ditugu orain, Azkuna eta Ortuzar moduko konpromisodun jendea, prestatua, langilea eta ekintzailea behar dutena. Zorionak!!!